


Euskal AEko industria-prezioak % 0,6 igo dira 2021eko abuztuan aurreko hilaren aldean

2020ko abuztuarekin alderatuta, industriako prezioek % 7,8 egin dute gora

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioak % 0,6 igo dira 2021eko abuztuan aurreko hilaren aldean. Abuztuko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industriako prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 7,8koa izan da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa xeheago batek agerian uzten du ezen, 2021eko abuztuan, sektore hauek izan dituztela prezioetan hazkunderik handienak aurreko hilabetearen aldean: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 3,5eko igoera), *Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa* (% 2,5eko igoera) eta *Makineriaren eta ekipoen fabrikazioa* (% 1,3ko igoera). Aitzitik, hil artean prezioetan jaitsierak izan dituzten sektoreak hauek izan dira: *Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 2,5eko jaitsiera), *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 0,6ko jaitsiera) eta *Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak* (% 0,2 behera).

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraituz, prezioen aldaketek zeinu ezberdina izan dute aurreko hilaren aldean. *Energiaren* prezioak %1,6 igo dira, eta *Bitarteko ondasunenak* % 0,7. Aitzitik, *Ekipo-ondasunen* prezioak % 0,3 jaitsi dira, eta *Kontsumo-*

ondasunenak, oro har, % 0,1, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren prezioen jaitsiera % 0,2koa izan delako, zeren Kontsumo-ondasun iraunkorrenak % 0,1 igo baitira.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2021ko Abuztua			
	INDIZEA	ALDAKUNTZA %	
		2021abu / 2021uzt	2021abu / 2020abu
INDIZE OROKORRA	108,8	0,6	7,8
Sektore-banaketa			
Erauzketa industriak	104,3	-0,1	-2,1
Manufaktura-industria	109,6	0,2	8,0
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	106,9	-0,2	2,5
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	100,2	0,5	-8,6
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	110,4	0,1	6,3
Kokeak eta petrolioaren fintzen	110,6	-0,6	29,4
Industria kimikoa	119,5	0,9	9,6
Botiken fabrikazioa	111,4	0,2	2,9
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	100,4	0,5	1,4
Metalurgia eta produktu metalikoak	116,9	1,2	15,1
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	113,8	2,5	9,8
Material eta ekipoen fabrikazioa	107,4	0,0	2,5
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	105,2	1,3	1,9
Garraiorako materialen fabrikazioa	102,7	-2,5	-5,7
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	108,5	0,1	2,3
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	103,8	3,5	7,2
Ura	112,1	1,0	1,4
Industria-sektore handien arabera			
Kontsumo-ondasunak	107,8	-0,1	2,8
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	106,6	0,1	2,3
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	108,0	-0,2	2,9
Ekipoen-ondasunak	107,2	-0,3	-0,6
Bitarteko ondasunak	111,6	0,7	9,6
Energia	108,4	1,6	18,8

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Urte arteko terminoetan (2021eko abuztua, 2020ko abuztuaren aldean), prezio-hazkunderik handienak adar hauetan izan dira: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 29,4ko igoera), *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 15,1eko igoera) eta *Produktu informatiko, elektronikako eta optikoen fabrikazioa* (% 9,8ko igoera). Kontrako noranzkoan, jaitsi egin dira *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 8,6), *Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 5,7) eta *Erauzketa-industriak* (% 2,1) sektoreetako prezioak.

Helburu ekonomikoaren araberako ondasun-talde handien prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da *Energian* (% 18,8ko igoera), *Bitarteko ondasunetan* (% 9,6koa) eta *Kontsumo-ondasunetan* oro har (% 2,8koa). Azken horietan igoera gertatu da zeren *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak % 2,9 igo baitira, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrenak* % 2,3. Aitzitik, urte arteko terminoetan, *Ekipo-ondasunen* prezioak % 0,6 jaitsi dira.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62